

Enbaxadore saharuiarrak gure artean

Saharako bost hurrek uda igaroko dute Lasarte-Orian

Sahara Herriaren Lagunen Elkarteak, Lasarte-Oriako Udalen eta Euskadiko Saharar Delegazioaren laguntzarekin, *Oporrak Bakean* programa martxan jarri du. Ekimen honen bitartez 7 eta 12 urte bitarteko bost haur saharuiar Lasarte-Oriara etorriko dira uda igarotzera. San Pedro jaiak ezagutzeko aukera izango dute eta abuztua bukaerara arte gure artean izango dira.

Asteartean, elkarteak kideak eta bost harrera familiak kultur etxean elkartu ziren ekimen honen eta bi hilabetez jasoko dituzten haurren inguruko informazio gehiago jasotzeko.

Oporrak bakean

Sahara Herriaren Lagunen Elkarteak kideak azpimarratu

nahi dute oporraldi hauek duten garrantzia: "etorriko diren haurrak errefuxatuen kanpamenduetan jaiotako hazi dira, eta euren familiarekin batera, erbesteratze luze bat jasaten ari dira, mota guztietako beharrak pairatzeaz gain, udako hilabeteetan 50 graduetara iristen diren tenperaturak jasaten dituzte. Kanpamenduetan giza egoera larritu egin denez, beharrezkoa da haur saharuiar hauei udan aukera bat eskaintzea".

Egonaldiak irauten duen bitartean, kanpamenduetako haur hauek osasun errekonozimenduak egiteko aprobetxatuko dute; bista eta horts-aginak begiratu eta txertoak hartuko dituzte. Baina aisiarako eta ongi pasatzeko aukera ere izango dute. •



Astearte iluntzean kulturetxean emandako hitzaldian *Oporrak Bakean* programaren berri eman zuten.

Azken atentatua gaitzesteko agerraldia

Legution asteazken goizaldean ustez ETAk Guardia Zibilarren kuartelaren aurka burutu zuen atentatua gaitzesteko kontzentrazioa egin zuten atzo, ostegun eguerdian, Udaltxe aurrean. Herritar eta udal agintari ugari, Alkatea buru zutela, bildu ziren atzo eguerdian 12:00etan. Errepidearen bi aldeetara ipini ziren bildutakoak eta hamabost minutuko isilunearen ondoren, txaloaldiarekin amaitu zen. •



KULTURA | 3

Altxorraren bila
ibiliko dira
herriko gazteak
larunbat gauean
Ostarteren eskutik

ASTEKO ERREPORTAJEA | 5

Buruntz-Azpi
elkarteak
antolatuta
Garagardo Azoka
asteburu honetan

**BELARTZA
JATETXEA
TABERNA**

Asteburutako menua 11€

Eguneko menua
Ogitartekoak
Plater konbinatuak

Larunbata gaua
eta igandea
ixital!

Belartza poligonoa
Gurutzezi kalea 15, 4A Pabillioia
20018 Donostia • Tel.: 943 376082

UDA HONETAKO ESKAINTZA

- Ikasketa teknikak.
- Informatikako ikastaroak:
 - 8-11 urte
 - 12-15 urte



MATRIKULA IREKIAI

zitek
z i e n t z i e s k o l a

Zitek zientzi eskola
Goikale, 12
20.160 LASARTE-ORIA
Telf: 943.36.31.06



HEZIKETA ZIKLOAK
Diseinu Grafikoa
Kirol Ekintzak

Ate Irekiak
Maiatzak 22
18:00-19:00
Barandiaran Lizeoan

izan nahi duzuna!



www.barandiaranlizeoa.com 943213355 barandi02@ikastola.net

Neure kabuz



Sorginak badatoz

Maiatzaren erdira iritsi ganean udaberri usainak goxotasun berezia dakarkigu guztioi. Herriak ere neguko lozorrotik berpizten ari dira eta Euskal Herri osoan zehar jaia eta festa nagusitzen ari da eta noski horrek barenera sekulako poza dakarkio. Gure herrian ere herri lanari esker, Sorgin Jaiak sortu zirenetik, herriko jaiak kolore berezia hartu dute, parte hartze ezberdinei atek irekitzea lortu da eta nortasunez beteriko jaiak lortze bidean pauso garrantzitsua eman da.

Bide horretan, asteroko lanari esker aurrera ateratu dira gure jaiak, herriak eginko jaiak eta herriak gozatu dituen jaiak, baina urterik urte herriak duen antolakuntza kapazitatea begi bistan geratu arren, udalaren aldetik mehatxu gixa hartzen dira ekimen guzti hauek, badirudi beldurra diotela heritarrek eginko ekimen hauei, baina zergatik?

Egia esan, udalerritan urte askotan jaiak hiltzen utzi dira, ez dira pizgarri berriak hartu eta bertan hutsune handi bat sortu da, ikuskizun handiak bideratu nahi izan dira Donostian izango bagina lez eta horrek ez du ez hanka ez eta buru. Hutsune hori baliatzen saiatu izan da Sorgin Jaia eta ongi lortu ere, argi esan liteke jaien parte hartze zabalena Sorginen gunean burutzen dela.

Sorgin Jaiak gertu ditugu, eta denon laguntza behar dugu, herrian izan diren jaiak ederrrenak atontzeko, gogoak baditugu, ilusioa ere, horregatik jarrai dezagun bidea egiten, herriarrok egin ezean ez baitu inork guretzako egingo. Gora Sorgin Jaiak.

Beñat Iriondo

Zorion-agurrak



Naïke, Larra, Mundu

Dauzkagun "7 bizitzetatik" ospaketa bat aihu genun. Zorionak hirurei ta bati besarkada potooooooooo bat.



Asier

Kaixo Pottoko! Zorionak lehen urtebetetzean, aitatxo, amatxo eta Belenen partetik.



Enaitz

Amona eta osabaren partetik, Zorionak.



Eneritz

Zorionak laztana. Txokolatetzko zazpi muxu Eñaut eta famli guztia-ren partetik.



Izan

Zorionak zure familiar-partetik zure lehenengo urtebetetzean. Muxu asko politta!



Irati

Zazpi muxu potolo etxeko erreginarentzat. Zorionak!



Eneko

Zorionak pottoko zure bigarren urtebetetzean. Aita, ama eta Aritzen partetik.

Guardiak

- Ostirala, 16**
Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567
- Larunbata, 17**
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652
- Igandea, 18**
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652
- Astelehena, 19**
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652
- Asteartea, 20**
De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151
- Asteazkena, 21**
Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774
- Osteguna, 22**
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Telefonoak

- Osasuna / Larrialdiaik**
- Osasun Zentroa ... 943 007960
- DYA ... 943 370000
- Gurutzte Gorria ... 943 363953
- Udalzainak ... 943 362442
- Ertzaintza ... 943 288888
- SOS Deiak ... 112
- Udala**
- Erregistroa ... 943 376055
- Euskarako Zerbitzua 943 376184
- Kiroldegia ... 943376182
- Kulturetxea ... 943376181
- Bakezko epaitegia ... 943371629
- Zerbitzu Sozialak ... 943376179
- Zentro Zibikoa ... 943363958
- KIUB ... 943361605
- Udal euskaltegia ... 943361621
- Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Kafetera, kafe-errota, izotza egiteko makina eta ontzi-garbigailua, 2 haur logela osoak eta 3,10mko neurria duen libreria armairua salgai. Egoera onean eta merkeak. Tel.: 607 983512.

- 2 ohe zubi eta guzti, matrimonio ohea, 4 ateko 2armairu handi, 2 mesilla eta komodina, 2 ohe individual. Denek koltxoi berria dute eta altzariak berriak daude. Labadora, mikro uhina eta hozkailua. Sarrerako altzari berria eta 2 lanpara. Tel.: 943 366876.

- Euskaltelen replika den karretretako bizikleta, Mountain Bike BH ta pasiorako bizikletak salgai. Hirurak egoera onean daude eta nahiko berriak dira. Tel.: 647 404831.

Lan-eskaintzak

- Matematikako irakaslea behar da 6.mailako ikasle bati klaseak emateko. Ordainduta. Tel: 607640030, Mari Carmen.

Lan-eskariak

- Pertsona euskaldun bat eskaintzen da, maiatza eta ekainean haurrak zaintzeko edo eta klase partikularrak emateko. Tel.: 625 708187

- Pertsona euskaldun bat behar da bi haur zaintzeko. Astean bi egunez eta 2 edo 3 orduz. Tel.: 670 864584 / 943 377937.

- Emakume bat lan bila bidali. Etxeko garbiketa lanetarako edo zaharrak eta haurrak zaintzeko. Interna moduan edo orduka lan egiteko prest. Experimentiarekin. Tel.: 677 746 840.

Oharretarako:

943 366858 • txintzarri@ttakun.com • Geltoki kalea 4

Jaiotzak

Iker Calvo Prego, maiatzaren 10ean.
Igor Rodriguez Lorenzo, maiatzaren 8an.
Araia Salazar Ongay, maiatzaren 5ean.
Oier Etxebeste Rojo, martxoaren 11n.

Heriotzak

Charo Lopez Martin, maiatzaren 12an 64 urte zituela.
Rufina Santamaria Echaniz, maiatzaren 11n 86 urte zituela.



Lurdes Ubegun

59 urte zituelarik hil zen maiatzaren 14an.

GOIAN BEGO

Taldea izan da zure bizitzan garrantzitsua. Emakume kirolaria 70. hamarkadan. Garairako aitzindari. Harrezkero mantendu duzue elkarbizitza. Inbidia sortarazi digun koadrila.



Ekinzaile porrokatua. Beti lanerako prest. Umore ona konstante bat izan da zure bizitzan.

Guk hala ezagutu zaitugu. Euskararen marotoietan, inauterietan, eta zer esanik ez Santa Ana parodian. Jakin ezazu hurrengoetan ere gurekin izango zarela.

Askok jasoko duzue asko eman duzulako.

Hurrengo ekitaldiko zuretzako izango diren txaloak denon artean jasoko ditugu.

Txintzarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Edozeinek parte hartzeko azoka

TXINTXARRI

San Markoseko Mankomunitateak bigarren eskuko merkatuak antolatu ditu maiatzaren 18tik ekainaren 29ra arte. Hirugarren edizioa da aurten goa Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan zehar ibiliko dena.

Lasarte-Orian maiatzaren 25ean egingo du geldialdia goizeko 10:00etatik 14:00ak bitarte. Mota guztietako objektu erabiliak saldu, erosi edo trukatu nahi duen edozeinek parte hartu dezake eta baita, besterik gabe, zaborra murrizteko ekimenetaz informazioa jaso nahi dutenek.

Produktu mota ezberdinak prezio baxuan eskuratzeko aukera ona da, dekorazioa,

arropa, liburuak, musika, kirol materiala, informatika eta jostailuak esate baterako. Merkatuaz gain beste ekintza batzuk egongo dira inguruan, bererabilera tailerra, musika, elkarriketak eta gaiaren inguruko informazioa.

Erabilitako gauzen salmenta, trukea, opari edo bilaketak egiteko panel bat egokituko da iragarriki jartzeko, ondoren web orrialdean eskegiko direnak.

Ekimen hau herritarrei bererabilera-erperientzia praktikoa edukitzeko aukera izan dezaten egiten da eta aldi berean hondakinen prebentzioa informazio gehiago emateko.

Parte hartzeko beharrezkoa da objektuak erabiliak izatea eta egoera onean ego-

tea, besterik ez. Lekua erreserbatzeko epea zabalik dago eta ez dago epe mugarik; hala ere, erreserbak nahiko aurrerapenez egitea eskatzen da. Partehartzea doakoa da, antolakuntzak 3x3 metroko 25 karpa jarriko ditu merkatu bakoitzean. Horietako hiru, Informazio gunerako erabiliko dira, bat bererabilera tailerretarako eta gainerako 21ak salmenta edo truke postuetarako. Mahaia eta aukiak ere jarriko dira eta postuak banakakoak edo partekatuak izan daitezke, eskariaren arabera.

Informazio gehiago behar izanez gero www.merka2sanmarcos.org gunean edo 943 670249 telefonoan eskatu daiteke. •



Norbaitek azokan parte hartu nahi badu, Mankomunitatean galdetu.



Mendi-martxa Zubietako gainetara, larunbatean, 10:30ean Okendotik

Lasarte-Oria Bizirik, Zubietako Lantzen eta Usurbil Bizirik taldeek Gipuzkoako Errausketaren Aurkako Plataformen Koordinadoraren babesarekin, Zubietako gainetara egin asmo duten errausketariaren kokalekura ibilaldi bat antolatu dute asteberu honetarako.

Mendi-martxa hau maiatzaren 17an, larunbatean, Zubietako Estanko taberna aurretik abiatuko da. Lasarte-Oriatik ibilaldira joan nahi dutenek Okendo plazan dute zita, izan

ere, bertatik 10:30ean abiatuko dira Zubietara aldera.

Ibilbidea eroso eta erraza da, beraz edonork parte hartu dezake mendi-martxan. Errausketaren aurkako taldeek kideek jende guztia ibilaldian parte hartzera gonbidatzen dute, "txikizioa egin nahi duten lekua ezagutzeko. Errausketaren aurkako gure jarrerari eusten diogun, osasun eta ingurumenarentzako metodo kaltegarri eta garestizat jotzen baitugu". •

Altxorraren bila ibiliko dira gazteak larunbat gauean



Ostare gazte taldeak, larunbat gaueko Altxorraren bila jolasa antolatu du. Ekintza honen helburua gazteentzako eskaintza zabaltzea da, beraien uste-tan gauza gutxi antolatzen baitira herrian gazteentzat.

Larunbat goizean Michelingo kiroldegian egongo dira informazioa ematen. Ez da beharrezkoa aurrez izena ematea, egunean bertan Okendora azaltzea nahiko da.

Altxorraren bila jolasa 13 urtetik gorako gazteei bideratua dago eta gaueko 22:00etan hasiko da Okendo plazan. Taldetan banatuta ibilbide ezberdinak egin beharko dituzte altxorra dagoen lekura iristeko. Horretarako pista emango dituzte, baina ez omen dira oso errazak izango, hala ere frogatzen eginez gero, pista errazago bat eskuratu dezakete. •

Sendoki elkarte ospakizunetan murgilduta

Nahiz eta elkarte bezala orain hogeita bi urte eratu, lehenengo pausuak eman eta ekintzak antolatzen hasi zirela hogeita bost urte bete dira.

Beti izan da talde txikia lanean aritu dena Sendokin, lau edo sei lagun inguru, baina beti gogoz aritu dira lanean eta ilusioz.

Gogoan dute nola hasi ziren, Gipuzkoako Foru

Aldundira eskatu eta lortutako diru-laguntzekin abesbatzak eta musika klasikoko onretuak ekarri zituzten oraindik udalik gabe zegoen Lasartera.

Gaur elkartuko dira Sendoki Elkartetik pasa diren kideak, eta, seguruenik nostalgiaz beteak, mahai baten inguruan azkeneko hogeita bost urte hauen errepaso egingo dute. •



Santa Anako Artisau azokak XXV urte beteko ditu aurten.

Ahokotasuna eta bertsolaritza astelehenean kulturetxean

Gipuzkoako Bertsozale Elkarte duela zortzi urte hasi zen Bertsolaritza eta Ahokotasuna izeneko proiektuarekin ikastetxe desberdinetan lanean, eta urtez urte hedatzen joan da proiektua. Proiektuarekin bat egin duten ikastetxeen artean, Lasarte-Oriako Landaberri eta Sasota-Zumaburu daude.

Ahokotasuna eta bertsolaritza proiektuaren helburuetako bat kurtsu bukaeran egiten den jaialdia da. Bertsolaritzaren bueltan lanean jardun direnei jendaurrean aritzeko aukera ematen zaie proiektu publikoan trebatu daitezkeen, horretarako beharrezkoak diren baliabideak eskainiz.

Bi saio egingo dira astelehenean kulturetxean arratsaldeko 17:30ean eta 18:30ean. •

Hamaika garagardo dastatzeko aukera VII. Garagardo Azokan, Basaundin

- Bihar goizeko 10:30ean Lasarte-Oriako elkartearen arteko sukaldaritzak lehiaketa egingo dute
- Bazkari berezia prestatzen ari dira Buruntz-Azpikoak igande eguerdirako: zikiro jana

Buruntz-Azpi elkarteak VII. Garagardo Azokari hasiera eman zion atzo arratsaldean eta igande gauerdia arte irekita egongo da. Urtero legez, hainbat garagardo berezi eta arruntak ekarri dituzte dastatzeko. Baina, aurreko berrikuntzak ditugu: larunbat goizean herriko elkarte gastronomikoen arteko sukaldaritzak lehiaketa antolatu dute eta etzi, zikiroa prestatuko dute bazkaltzeko. Aurtengo azoka iragartzeko kartel lehiaketa David Sanchez Carreterok irabazi du.

Itziar CARRASCO

Buruntz-Azpi Elkarteko bazkideek atzo ireki zituzten VII. Garagardo Azokako ateak Basaundiko plazan eta igande gaua arte irekita mantenduko dituzte, arratsaldeko 18:00etatik gaueko 12:00ak bitartean. Atzo arratsaldeko 18:30ean egin zen irekiera ekitaldia. Bertan izan ziren David Sanchez Carretero kartel lehiaketako irabazlea, eta Manuel Aduriz, okela banatzailea. Biek dastatu zituzten lehen garagardoak.

Manuel Aduriz izan da aspalditik Garagardo festara okela eraman duena eta omendu egin zuten atzo berari lehen tragoxka hartzeko aukera emanaz. Okela enpresa izateaz gain Errealeko zuzendaritzako kide izan da hainbat urtetan, diruzaina eta presidenterordea ere bai Iñaki Alkizarekin hiru urtez. Bere emazte Joki Oterminek lore sorta bat jaso zuen ostegun arratsaldeko ekitaldian.

Bestalde, David Sanchezek kartel lehiaketako saria jaso zuen irekiera ekitaldian.

Urtero bezala, Basaundin jarri den karpara gerturazten direnek txerri-ukondoa, lakon, saltxitak, patata bixiak, txibiak, txorixoa, gazta, euskal-goxoa eta nahi adina garagardo izango dituzte dastatzeko asteburu osoan zehar. Garagardo bere-

ziak izango dira, besteak beste, Affligen, Paulaner-salvator, Paulaner-garia, Paulaner-oria, Murphys, Guinness eta London Pride. Arruntak ere bai, hotz-hotza ateratzen den Heineken zero azpikoa, Amstel 1870, Amstel urrea eta alkoholik gabeko Buckler.

Zazpigarren urtea da jada Buruntz-Azpikoek garagardo azoka hau antolatzen dutela. Aurreko urteetan egindako lanak esperientzia handia eman die eta hori urtetik urtera nabarmenagoa da. Gero eta gogo gehiagorekin heltzen diote azokari eta aurreko sukaldaritzak lehiaketa eta zikiro jana antolatu dituzte.

Sukaldaritzak lehiaketa

Bihar, larunbata, goizeko 10:30ean sua eta eltzak kaleara aterako dituzte. Izan ere, ordu horretan hasiko baita Lasarte-Oriako Elkartearen arteko sukaldaritzak lehiaketa.

Partaideek behi-gisatua prestatu beharko dute. Buruntz-Azpi elkarteak haragia jarriko du eta partaideek gainontzeko jaki eta gozagarriak eraman beharko dituzte. Haragi gosia Basaundin bertan egin beharko dute 10:30etatik aurrera. Taldeak elkarte bakoitzeko bi lagunek osatuko dute.

Epai-mahaian herriko sukaldari ospetsuak, Martin Berasategi eta Donostian



David Sanchez Carretero, kartela egin duenak, eta Manuel Aduriz okela banatzaileak ireki zuten garagardo festa.

Herriko elkarteek sukaldaritzako lehiaketan parte hartuko dute

dagoen Urgull jatetxeko Josein Olasagasti, eseriko dira elkarteetako ordezkariak prestatuko dituzten platerak dastatzeko. Baina, lehiaketa ikustera gerturazten direnek ere, herriko sukaldariak prestatutakoa probatu eta kritikatu ahal izango dute eguerdiko 13:00etatik aurrera.

Aurtengo azokak duen beste berrikuntzetako bat, zikiro bazkaria da. Gutxi gora behera, 200 lagunentzako

Buruntz-Azpikoek zikiroa prestatuko dute igande eguerdian

prestatuko dute zikiroa igande eguerdian. Txartelak azokan bertan, Aldatz-Ekua edo Ilargi tabernetan erosi daitezke, ostiral gaua arte, 20 euren truke. Txartelak zikiroa eta bi garagardo edateko aukera eskaintzen ditu.

Kartel lehiaketa

Aurtengo garagardo azoka iragartzeko kartel lehiaketan bederatzita pertsonak aurkeztutako hamabi lanen artean

aukeratu behar izan dute. Iñaki Lasak, Buruntz-Azpi Elkarteko lehendakariak, kontatu digunez ez da batera erraza izan bat saritzea: "kalitate handiko lanak eta lan berritzaileak aurkeztu dituzte. Inoiz baino borrokatua egon da eta saria merezi zuten lanak atzean geratu dira". Azkenean, David Sanchez Carreterok aurkeztutako "Brindis" lanak irabazi du VII. Garagardo Azokako kartel lehiaketa.

Irabazleak osteguneko ekitaldian jaso zuen 300 euroko saria. Davidek sari nagusia eskuratu duen arren, gainontzeko partaideek ere saritxo bat jaso dute: azokan afaltzeko bi pertsonentzako gonbitea.

Igande gauerdia arte garagardo azoka irekita izango da. Beraz, aprobetxatu eta topa. On dagizueta. •

UDAko TXokoAK

GAZTE KANPALDIAK 2008

Ttakun Kultur Elkartea • Geltoki kalea 4 • 943 371 448 • aisia@ttakun.com • www.ttakun.com

Apelliduak abizentzeko informazio kanpaina

Urte osoan zehar aldatzen ditu jendeak izen eta abizenak euskal grafia

Helena FERRERAS

Buruntzaldeko Udalek euskarazko abizenak euskarazko grafiaz jartzeko egitasmoa atera dute aurrera. Herritarrek zein pauso eman behar dituzten jakin dezaten eskuorriak eta txartel handiak argitaratu dituzte.

Abizenak euskarazko grafia aldatzea erraza da eta udalek prozesua nola egin behar den azaldu nahi diete herritarrei. Aurkeztu beharreko agiriak errola agiria (udal txartel egiten dena), jaiotzagiri literala (bake epaitegian egiten dena), NANaren fotokopia eta familia liburua dira, azken hau bakarrik ezkontuta edo seme-alabarik izanez gero. Bake epaitegian aurkeztu eta beste ezer ez da egin behar Echeverría "ch"z idatzita duenak Etxeberria "tx"ekin idatzita eduki ahal izateko.

Kanpainia batez ere hemezortzi eta hemeretzi urte bitarteko gazteei zuzenduta dago adin tarte horretan nortasun agiria berritu behar delako eta behin berritzer

joanda errazago da aldaketa egitea. Gazteek eskuorria etxean jasoko dute baina adin tarte horretakoa ez den edozeinek, Udal Euskara Zerbitzura joan eta bertan eskatu ditzake azalpenak.

Euskaltzaindiaren arauak

Abizenak edo izenak euskaraz idazteko Euskaltzaindiaren arauen arabera egin behar da. Epaitegian bertan dute zerrenda duen liburua, Interneten ere kontsultatu daiteke Euskaltzaindiaren web orrialdean. Izendegia gauzatzeko erabilitako irizpide nagusia izenen erabilera eta hizkuntza zuzentasunaren arteko oreka mantentzea izan da eta deituren kasuan batez ere idazkera akademikoari egokitzea. •

Ez da kanpainia kaleratzen den lehen aldia, baina herritarrei prozesua erraza dela gogoratzeko egiten da.

Ieregitar ahizpak abizen desberdinarekin

Familia bera, deitura ezberdinak

Ieregitarren kasua berezia da, baina ziur ez direla horrelako egoeran topatu diren bakarrak. Juan Luis Ieregi bigarren alabaren nortasun agiria egitera joatean, bi ahizpek abizen desberdina zutela ohartu ziren bulegoan. Denek abizena berdinean idatzita izan behar dutela esan zieten gurasoei.

Beraz, Ieregitarrek Familia liburuan abizena desber-

din idatzita zutenek, batak Yeregi eta besteak Yeregi, aldaketa egin behar izan zuten.

Abizena euskaraz edo gazteleraz idazteko aukera eskaini zieten. Juan Luis Ieregi kontatu digunez, asko pentsatu gabe apelliduak abizendu zituzten.


Bide batez denak aldatu

Egoera aprobetxatuz, familia lasarteoriatar honek abizen guztien aldaketa egin zuen. Juan Luisek eta bere emaz-

teak, alabek bezala, deitura aldatu zuten. Bake Epaitegiara joan eta bertan dagoen liburua kontsultatu ondoren, apellidu hauek abizentzea erabaki zuten: Yeregi beharrean Ieregi, Uhiciren ordez Uitzi eta Eceiza zena Ezeizta da orain.

Ieregi-Ezeiztarrek aldatetarako aukera izan dute, baina beste familia batzuk arazoak dituzte abizenak euskarazko grafia aldatzeko, abizenen jatorria oraindik argi ez dagoelako. •

Aisu! Gueuc abisenac euscaras!



WWW.MONDRAGON.EDU/PREST

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

2008 deituntza urtea año de la innovación

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 17

11:00etan, Ostadar-Amaikak Bat (Infantilen I.maila, Igoera fase) Michelinen.
12:30ean, Ostadar-Lagun Onak (Kadeteen I.maila, Igoera fase) Michelinen.
15:30ean, LOKE Texas Lasartearra-Oiartzun (Jubenilen I.maila, Igoera fase) Michelinen.
17:15ean, LOKE Texas Lasartearra-Usurbil (II. Erregionala, kopa) Michelinen.

15:30ean, Oiartzun-Ostadar (Jubenilen I.maila, Igoera fase) Ugaldetxo.
17:30ean, Martutene-Ostadar (II. Erregionala, Igoera fase) Martutenen.

Igandea 18

10:00etan, Beasain-Ostadar (Alebinen Txapelketa fase) Beasainen.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 17

15:00etan, ISU Ieihoak-Aloña Mendi (I. Maila) Kiroldegian.
21:30ean, Azpeitiko A.F.-Aldaz H.K. (I. Maila) Azpeitian.

Igandea 18

11:00etan, Buenetxea-Solasten Lazkao (I. Maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA KIROLDEGIAN Larunbata 17

KONTSOLAZIOA
16:00etan, F.Ruiz-Mostatxo LIGILAKO FINALA
17:00etan, Jordi-Epel FINALA
18:00etan, Buenetxea-Izkiña SARI-BANAKETA
18:20etan, Kiroolari onenari saria: Maialen Chourraut.
Auzolan saria: Buruntz-Azpi
19:00etan, sari banaketa

SASKIBALOA

Larunbata 17

16:00etan, Mondragon U.-Ainhoa (Gizonezkoak) Arrasaten.

GIMNASTIKA

Larunbata 17

11:00etan, LOKE- (Afizionatuak) Lasarte-Orian.

ATLETISMOA

Igandea 18

10:00etan, (Erdi maratokia) Donostian.

Kiroletako oharrak

Finaletan tabernak ordu bete bat gehiago irekita

Ostadar Kirol Fundazioak herriko tabernariei eta gainontzeko herritarrei jakinarazi nahi die areto-futboleko finalen egunean, maiatzaren 17an, eta Udalaren baimenarekin, tabernekin ordu bete beranduago itxi ditzaketela.

Alebinentzako deialdia

"Kirola zure herrian egin" lelopean, Ostadar K.F.k hurrengo den-

boraldian alebinen taldean jokatu nahi duten haurrentzat aurre inskripzioa ireki du. 1997an jaiotakoek eta Lasarte-Orian bizi direnek, herrian ikasi edo ez, soilik eman dezakete izena. Izen ematea astelehenetik ostiralera, 19:00etatik 20:00ak bitartean Ostadarreko bulegoan, Geltoki 2an, eman daiteke, maiatzaren 30a bitartean. Jokalari kopurua mugatua denez, Ostadarrek ekainean entrenamenduetarako deialdia egingo du.

Anduri Espainiako Raidean 8. sailkatua

Zaldiak Europako Txapelketan parte hartzeko aukera du



Anduri zaldia eta Peré Llorens Rodríguez zaldizkoa, eskubian, 120 kilometro egin ondoren helmugara iristen.

TXINTXARRI

Xabi Etxezarreta eta Bakartxo Irazusta lasarteoriarren Muxala zalditegiko Anduri zaldiak, Zaldizko Gazteen Raiden Espainiako Txapelketan, Europako Txapelketarako pasea lortu zuen, maiatzaren 2 eta 3an, Oviedon.

Anduri, odol garbiko zaldi arabiarra, Oviedoko El Asturcón zaldi-zentroan ospatu zen Espainiako Txapelketan 8.postua lortu zuen. Sailkapen honek Europako Zaldizko Gazteen Txapelketarako aurre aukeraketan sartzeko aukera eskaini dio. Europako Txapelketa Oviedoko zaldi-zentroan bertan, irailean ospatuko da. Peré Llorens Rodríguez kata-

luinarrak Anduri gidatu zuen Oviedoko Raidean.

Raid gogorra

Andurik probak osatzen zuten 120 kilometroak 11 ordu eta 30 minutuetan egin zuen, 12,97 kilometro orduko. Raidak derrigorrezko bost atsedeen gune zituen eta hauetan albaitarien azterketa medikoa bikain pasa zituen. Haue-tan 12 minutu besterik ez zuen hartu deskantsatzeko.

Hirurogei eta hamar bat zaldik hartu zuten parte bertan. Lehenengo bi zatietan Anduri 23. postuan sartu zen eta azkeneko zatira arte pixkanaka postuak aurreratzen joan zen, 8.postua lortu arte. Proba oso gogorra izan zen eta horren isla da bidean geratu

ziren zaldi kopurua, 30 bat.

Ibilbideak mendi-bideak zeharkatzen zituen. Tramu aldapatsuek eta egun horretan egin zuen beroak probaren gogortasuna areagotu zuten. Hala eta guztiz ere, Xabier eta Bakartxoren zaldiak errekupe-ratio azkarra izan zuten. Zaldiak 120 kilometro egin ondoren erraz pasa zuen azkeneko azterketa medikoa, hau da, ibilbide oso amaituta, oraindik, baldintza fisikoki onean zegoen jarraitzeko.

Saio bikaina egin zuten biek, bai Anduri zaldiak, baita Llorens Rodríguez zaldizkoak. Oviedon irailean ospatuko den Europako Txapelketan parte hartzeko aukeratuak izan daitezten itxaron beharko dute. •



Herriko lau judoka Espainiako txapelketan

Esteban Martinez eta Kiara Tobajas Lasarte-Oriako judoka gazteek Espainiako txapelketara joateko txartela eskuratu zuten asteburuan Gasteizen egin zen proban. Haurren mailan Estebanek hiru borrokaldi irabazi zituen eta arazo handirik gabe sailkatu zen. Kiara are errazago bere pisuan aurkeztu zen bakarra zelako. Aurretik sailkatuak zeuden Amaia Curiel eta Leire Zubizarreta. Beraz, Lasarte-Oriako lau judoka izango dira Murtzian, maiatzaren 23, 24 eta 25ean jokatu den Espainiako txapelketan. •



Iñigo Sevillano seigarren Espainiako lehiaketan

Lasarteoriatarra Madrilén ospatu zen Espainiako Txapelketa Unibersitarioan 6. sailkatu zen, 110m hesietako frogan, aurreko asteburuan. Oso eguraldi txarra egin zuen arren, Iñigo kontentua dago egindako denborarekin, 15"55. Gainera, fisikoki ez dago momentu onenean, denboraldia hasi berri da eta.

Asteburu honetan berriz bueltatzen da Madrilera, oraingoan Erreala taldearekin, Ohorezko mailako 2.ligan parte hartzeko. Hurrengo astean honen berri ere eman-gozu dizegu. •

Egunero

Erakusketa

SAHARAR KANPAMENDUETAKO ARGAZIAK Sahararen lagunak elkartearen eskutik. Jalgin.



Erakusketa

XXII. PINTURA TAILERRAREN erakusketa Bizilagunen elkarteak antolatuta. Kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.



Ostirala, 16

Bakarriketa

MOVIMIENTO BOLA, El club de la comedia-ko motako bakarriketa. Naiban tabernan, 23:00etatik 01:00etara.



Julen Cobos Jam Sesioan

Julen Cobos izango da gonbidatu berezia maiatzeko Jam Sesioan. Musikari honek runba estiloak lantzen ditu eta Bat Gehio taldearen taldekidea izan zen bere garaian. Sesioaren hasieran beste musikari batzuen laguntza izango du Julenek, Josu Etxeberria (ahotsa) eta Jokin Telleria (Bateria) kasu.

GAUR JALGI KAFE-ANTZOKIAN 22:30EAN

Igandea, 18

Zinea

ASTERIX JOKO OLINPIKOETAN haurrentzako filma. Sarrera 3 euro. Kulturetxean, 17:00etan. GAZTELANIAZ

Asteazkena, 21

Hitzaldia

JELOSKORTASUNARI BURUZKO HITZALDIA KIUBek antolatuta Pilar Seminarioren. Otik 7urte bitarteko haurren gurasoentzako. Kulturetxean, 18:00etan. GAZTELANIAZ.

Osteguna, 22

Hitzaldia

ANSIETATEA ETA DEPRESIOAREN INGURUKO hitzaldia KIUBek antolatuta. Kulturetxean, 19:00etan. GAZTELANIAZ.

Zinea

BROKEN FLOWERS filma OZTaren eskutik. Sarrera 4 euro. Kulturetxean, 22:00etan. GAZTELANIAZ.

Ostirala 23

Antzerkia

"OGIYIK KARRI ETZUN SEMIA" antzezlanaren Txirene taldearen eskutik Jalgin 22:30ean. Kultur Errotaren barruan. EUSKARAZ.

Eskutitzak

Lasarte-Oriako 2008ko aurrekontuak:
lehen atala

Gure kritikarik gogorrena adierazi nahi dugu joan den asteazkeneko udalbatzarrean PSO-EB tandemak onartu zituen aurrekontuen aurka. Herritarrek aurrekontuak ulertzeko eskubidea izan behar dutela uste dugu, ez bakarrik ikusteko; horregatik, zutabe honen aukera laburra erabili nahi dugu gure iritzia emateko. Aurrekontuen 41 milioi euroatik 16, Loidi-Barrenen eta Okendon udal lur sailak saldua eta bestelako hirigintza aprobetxamenduetan eginda lortuko dira.

Loidi-Barrengo lur sailak saltzea alde aurretik ikusita bazegoen ere, Okendoko eta Goiegi Gorako arearen garapena ulertezina iruditzen zaigu, guztiz ezinezkoa baita aurtengoa inolako hirigintza jarduerarik hastera anbulatorioaren aldean edota Goiegi hotelaren aldean. Guk dakigun bezala, Urchueguia andreak ere badaki hori, noski. Aurrekontua era horretan puzteak, aurtengoa ez diren diru sarrerekin (5,6 milioi euro), esan nahi du ez dela ordainezko gasturik ere egingo; beraz, atzeko pabilioen berretzea eta zahar etxearen birgaitzea ez dira egingo.

Adar jotze galanta! Izan ere, onartutako aurrekontuen arabera, bigarren urtez jarraian udal lurrairendare zko saldo negatiboa sortuko da, guztira 5 milioi eurokoa, ondareari dagokion ondasunak gastu arunterako erabili baitira.

2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, babes ofizialeko etxebizitzetarako lurzoru sortzeko helburu nagusia duenez, xedatzen du saldo negatiboa 2010erako kitatu beharko dela. Ondorioz, udalak beste horrenbesteko zorrari aurre egin beharko dio (gutxienez 5 milioi euro), gaur egun guztiz ezinezko litzatekeen gisan. Alderik txarrena da Lurzoruaren Legearen sustatzaile nagusi izan den Ezker Batuak aurrekontu horien alde egitea. Zalantzarik gabe, historian izan diren "aurrerakoienak" dira.

Estitxu Alkorta
(EAJren bozeramailea
Lasarte-Oriako Udalean)

Liburutegiko ordutegia



Astelehenerdik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era. Gurekin ondo pasatuko duzuelakotan, ostiralera arte!

Oharrak

Zabaletako jaiak

Auzoko jaiak antolatuzeko bilera egingo da ostiralero Antoni plazan iluntzeko 19:30ean. Aurtengoa txiki bat dago eta jaiak maiatzaren 27tik ekainaren 1a arte izango dira.

Santa Anako Pala Txapelketa

Aurtengoa Santa Ana Pala Txapelketako XXVII.edizioa ospatzen da eta izen ematea iadanik irekita dago maiatzaren 19 arte, Gure Etxea tabernan.

Gizarte Zerbitzuen Departamentuaren oharra

Gizarte Zerbitzuen Departamentuak gizarte-ongizatearen alorrean lanean diharduten erakunde eta elkarte guztiei jakinarazten die zabalik dagoela Gizarte Zerbitzuen Departamentu honen ematen ohi dituen dirulaguntzak eskuratzeko eskariak aurkezteko epea. Horretarako eskariak Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira (9:00etatik

13:00etara bitartean), eskatutako agiriarekin batera (Memoria, Gastuen Justifikazioa eta Jardueren Proposamena). Maiatzaren 5etik 30era aurkeztu daitezke eskariak.

XXXI Mus Txapelketako finaleko afaria

Lasartearra elkarteak ekainaren 7an izango den XXXI. Mus Txapelketako finaleko afarirako izena emateko epea zabalik dagoela jakinarazi nahi die bazkide eta lagunei. Interesatuak, elkartetik pasa behar dute eta izena emateko azken eguna ekainaren 4a izango da.

Usurbilgo Lanbide Eskola

Usurbilgo Lanbide Eskolak ate irekien jardunaldiak ospatzen ditu maiatzaren 17 eta 24ean goizeko, 11:00etan bere eskaintzaren berri emateko.

Glotodidaktika ikastaroa

Euskara irakaslea izan nahi dutenentzat, Antiguako AEK euskaltegian glotodidaktika

ikastaroa antolatu dute. Euskara irakasteko oinarriko prestakuntza emango da ikastaroan ekainaren 30etik uztailearen 24ra bitartean. Informazio gehiagorako, deitu 943327172 telefonora (Gipuzkoako AEK). Ikastaroan aprobetxamendu ona izanez gero, eta homologaziorako baldintzak betez gero, AEKren lan poltsan izateko aukera izango duzu.

Udalak antolatzen dituen udalekuak

Udaleko Zerbitzu Sozialen departamentuak urtero antolatzen dituen udalekuetan izena emateko epea gaur hasi da eta maiatzaren 30a bitartean luzatuko da. Udaleku hauek 10-14 urte bitarteko gazteentzako dira. Izen ematea Udaleko registro orokorrean.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal proposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Maria Linge Viedma, Helduen Eskolako ikaslea, 85 urte betetzear

Ikasteko sekula ez da berandu

Maria Linge Viedmak, 85 urte ekainaren 8an beteko dituen amonak, ez du ikasteko gogorik galdu. Jaengo herri batean sortua, emakume bizia da: goizero Helduen Eskolan izaten da irakurketa, idazketa, matematika,... denetariko ezagutzak lantzen. Bestalde, arratsalde batzutan beste hezkuntza bat, fisikoa, jorratzen du: gorputza lantzen du gimnasia-soinketa eginez. Tarteka jokuan ere aritzen da, gehienetan igandetean, briskan edo seisetan. Alarguna, Lasarte-Orian eman du bere bizitzaren erdia, bere senarra Donostiara arreba bisitatzera etorri eta herrian etxe bat erosita bueltatu zenetik.

JON ALTUNA

Jaengo Torres herrian jaio zen Maria Linge. Txikitan ez zuen eskolara joateko aukerarik izan. Bizitza osoan lan egin duen pertsona horietakoa da eta ez du azken urteotara arte ikasterik izan. Anai arreba txikiagoak zaindu zituen, seme-alabak gero eta bilobak ere bai. Aitari eta senarrari ere laguntzen zien Andaluziako sorroetan.

Gurasoak nekazariak zituen, ama herriko plazara joaten zen, etxean, hango "cortijo"an, jasotako barazkiak saltzera eta berak zaintzen zituen anai-arreba txikiak. "Zortzi urte nituenerako zaintzen nuen nire anai gazteena". Gero, 36ko gerrateak harrapatu zuen, anai zaharrenak gerrara eraman zituzten eta aita bakarrik geratu zenez, oraindik haurrak zirela, hari ere lagundu egin beharko. Ezkondu eta gero, senarra eta biek, koinatu-koinatarekin sail batzuek hartu zituzten eta senarrari laguntzen zion. Beraz, urte batzuk han pasa eta duela 44 urte Lasartera etorri

zen arte ez zen fundamentuz ikasten hasi. Hori bai, letra batzuk eta sinadura ikasi zituen baina gauza gutxi.

Nekazaritza bizi ziren senarra eta biak Santesteban del Puerto izeneko herrian. Lau urtetan bi haur ere izan zituzten. Garia eta garagarra jartzen zuten, olibondoak zituzten eta txerriak ere hazten zituzten. Gero lurren jabeak berak behar zituela eta, lurrik gabe utzi zituzten eta Torres-era itzuli ziren. Han izan zuten beren alaba, hirugarrena, orain hemen bizi dena.

Ezusteaz Lasartera

Orduan aldatu zen Maria Lingen bizitza: senarra, astebe-terako Donostiara etorri arreba bat bisitatzera, eta pisua erositu itzuli zenean. "Urte hartan uzta ona izan zen, diru apur bat genuen aurrerata eta horretan gastatu zuen". Ez ustean harrapatu zuen Maria eta semeengatik kezkatu eta haserretu zen. Helduenak 17 urte zituen eta hango bizitzara eginak zeuden. Etorri ziren Lasarte-Oriara



Maria Lingek XL liburuak irakurtzen ditu, letra handikoak.

tu egiten nau ikasteak. Dakite-nei entzutea oso gustokoa dut. Hori ere ikasi dut. Adibidez psikologo baten hitzaldia, edo aditu baten hitzak..."

Irakurri eta idatzi

Ez dauka lehenastunik. Dena gustatzen zaio. Matematikak dira, "las cuentas", zailenak beretzat. Irakurketa asko maite du eta poza ematen dio gero telebistan berak irakurritako zerbait buruzko erreferentziak ematen baldin badituzte. Liburutegiko arduradunak, Javier Rodríguez-ek gomendatzen dizkio, adinduentzako XL liburuak, letra handikoak. "Liburu bat idazteko esaten didate. Badituzte gauzak idatzita, baina nekatuta izaten naiz". Gaiak ez zaizkio falta: bere ume eta gazte aroak, 36ko gerrako istorioak, Andaluziako nekazarien bizimodua, lehen bidaia Euskal Herrira... Euskararik ez du ikasi, baina hitz bat ez zaio sekula ahaztuko: "mina". Bilobak arratsalde osoa negarrez pasa zuen "mina" esanaz; zer izango ote da? zioen berekiko alabak zer zen argitu zion arte.

Bilobak pozik daude amonarekin. Amona ere pozik da eurekin. "Ikasle onak dira eta lagundu egiten didate". Maria Lingek, nekatuta sentitu arren, ez du klaserik galdu nahi. Ikasgelatik atera genuen solaserako eta lehen bait lehen itzuli nahi zuen ikaskideengana. Eta horretan utzi genuen bere irrifarre eta bizipozarekin. Eta argutu aurretik, gonbidapena luzatu zuen, adinari begiratu gabe, helduen eskolara hurbil gaitzen. Berak, ez du momentuz uzteko asmorik. •

Idazten ikasi eta lehen eskutitzak Caceres-en ikasten zen alabari bidali zizkion. Eta harek zuzenduta itzuli.

baina etxeak egin gabe zeuden oraindik eta gela bat alokatu behar izan zuten.

Orduan, behin haurrak hazita, Emakumearen Zentroan hasi zen ikasten. Idazten hasi eta lehen eskutitzak Caceresen unibertsitatean zen alabari idatzi zizkion. Eta harek zuzenduta itzultzen zizkion.

Parentesi bat hartu zuen bilobak zaintzeko, eta duela 5 urte inguru, Helduen Eskolara hurbildu zen berriro. Astegune-

tan ia egunero joaten da, bate-tik XL liburuak (letra handia dutenak) irakurtzen ditu eta bestetik, bere bizipenak idazte ere gustokoa du. Aurten bere senarra ezagutu zuen uneari buruzkoa idatzi du, baina baditu beste batzuk. Dena den, orain gero eta gehiago kostatzen zaiola dio, begiak nekatzten zaizkio, buruak ez dio nahi bezala erantzuten eta iraklearen laguntza eskertzen du. "Ni oso pozik nago. Txora-

GOIEGI
Jatetxea - Restaurante

Irubide bailara 1 · 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) · T. 943 36 14 04 / 943 37 11 78

Maiatzatik Irailera gauero* zabalik
Asteko menu berezia ikusteko:
www.goeigi.com

* Igandea eta astelehena ezik